## GAURKO FILMEAK

# Mister Hyde ederraren mila aurpegiak

BEGOÑA DEL TESO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 11.30 | TVE2 | ○○ | UN DETECTIVE EN HOLLYWOOD | 1989 | Kevin Connors | 97 m. |
| 15.30 | ETB2 | ○○ | KANSAS: DOS HOMBRES DOS CAMINOS | 1988 | David Stevens | 103 m. |
| 15.30 | A3 | ○○○○ | REBELION A BORDO | 1962 | Lewis Milestone | 176 m. |
| 16.20 | TVE1 | ○○○ | LA PELIRROJA INDOMITA | 1955 | Mervyn le Roy | 107 m. |
| 17.20 | T5 | ○ | MI MARIDO Y SUS COMPLEJOS | 1969 | L. M. Delgado | 91 m. |
| 19.25 | ETB2 | ○○○ | LAS DOS CARAS DEL DR. JEKYLL | 1960 | Terence Fisher | 88 m. |
| 20.35 | C+(f) | ○○ | JUSQU´A CE QUE LE MEURTRE NOUS SEPARE | 1992 | Dick Lowry | 90 m. |
| 21.45 | T5 | ○○○ | DUELO DE TITANES | 1958 | John Sturges | 122 m. |
| 22.00 | C+(e) | ○○○ | ALIEN 3 | 1992 | David Fincher | 110 m. |
| 22.35 | ETB1 | ○ | BETIRAKO SUA | 1984 | Jose Angel Rebolledo | 91 m. |
| 23.05 | ARTE | ○○ | LE DERNIER CRI | 1975 | Robert Van Ackeren | 95 m. |
| 23.05 | C+(f) | ○○○○ | BASIC INSTINCT | 1991 | Paul Verhoeven | 125 m. |
| 00.00 | TVE1 | ○○○ | EL HOTEL DE LOS FANTASMAS | 1988 | Neil Jordan | 76 m. |
| 00.10 | F2 | ○○○○ | CHAINES CONJUGALES | 1948 | J. Mankiewic | 105 m. |
| 01.00 | TVE2 | ○○○ | EL PADRE DE LA NOVIA | 1950 | Vicente Minnelli | 92 m. |
| 01.10 | C+(f) | ○○○○ | LE QUATRIEME HOMME | 1983 | Paul Verhoeven | 100 m. |
| 01.40 | TVE1 | ○○ | BLACK CAESAR | 1973 | Larry Cohen | 89 m. |
| 01.30 | A3 | ○○○○ | CIMARRON | 1962 | Anthony Mann | 141 m. |
| 02.35 | TVE2 | ○○ | UNA TARDE DE LLUVIA | 1936 | Rowland V. Lee | 75 m. |
| 02.50 | C+(f) | ○○○ | SPETTERS | 1980 | Paul Verhoeven | 120 m. |
| 03.50 | T5 | | LO IMPORTANTE ES NO DEJARSE NOTAR | - | - | - |

○TXARRA ○○ESKASA ○○○BALEKOA ○○○○ONA ○○○○○BIKAINA

Txikitan, Mister Hyde gaiztoa zela erakutsi ziguten denek. Urteak joan, urteak etorri, Terence Fisher agertu zen eta Jekyll doktorearen egia iluna jarri zuen gure begi aurrean.

Gaztaroan, OK kortan gertaturikoaren berri jaso genuen larunbatetan ikusitako zenbait filmeren bitartez. Orain, ederki dakigu hori izan zela benetako 'Duelo de titanes'.

Neskatoak ginelarik, Matt Dillon genuen kuttuna. Segituan ikasi genuen hamaika aldiz sartu zuela hanka gailurrerako bidean. Kasu, gaurko 'Kansas: dos hombres, dos caminos' aldrebeskeria tontua.

'El hotel de los fantasmas-en' gela erreserbatuz gero minutu batzuk emango dituzue barrezka eta segundu zenbait aharrausika. Bi filme handi ikus ditzakezue hotel horretako parabolikatik: 'Rebelión a bordo' eta 'Cimarrón'.

### LAS DOS CARAS DEL DR.JEKYLL

**(Two faces of Dr.Jekyll)**

**Zuzendaria:** Terence Fisher. **Aktoreak:** Paul Massie, Dawn Adams, Christopher Lee.

Fisherrek azalduko diguna inor ez zen ausartu taularatzen. Egia esango digu mister Terencek, Hyde jauna Jekyll baino askoz interesgarriagoa zen, doktore ahula baino misteriotsuagoa, zientzilaria baino askoz egiazkoagoa. Hamaika jendek ez zuen tentaldi horretan zetzan ironia, zegoen joko maltzurra harrapatu. Seguru zuek filme amatatu, hilgarri, goibel honi darion minaz jabetuko zaretela. Hala bada, izan zaitezte zorionekoak.

### DUELO DE TITANES

**(Gunfight at the OK Korral)**

**Zuzendaria:** John Sturges. **Aktoreak:** Burt Lancaster, Kirk Douglas, Rhonda Fleming.

Handia ekoizpena. Luxuzkoa. Dir-dir egiten du planu bakoitzak. Dimitri Tiomkinen musikak lehengo tiro hotsetik harrapatuko zaitu eta OK korta *Far West*-eko leienda baino ez izan arte ez zaitu abandonatuko. Charles B. Langen kamerak ederki daki balek sorturiko haize boladak zeluloide bihurtzen. Leon Urisen gidoia ahalegin askoren emaitza da eta John Sturges zuzendariaren abileziak Mendebalde basan murgilduko gaitu. Pantailan agertzen diren guztiek azaldu behar zuten bertan: Burt eta Kirk, Rhonda Fleming eta John Ireland, Lee Van Cleef eta Dennis Hopper. Batzuen ustez, zerbait falta du lan honek. Ez dut uste. Akzioa du nahi adina eta hor diharduten Doc Holliday, Wyatt Earp eta Clanton gaizkileak gure haur denborako ameskide arriskutsuak izan ziren. Egia ez dela John Fordek egina. Ez eta Anthony Mannek ere, baina traiziorik egingo ez dizuen lana duzue.

### CHAINES CONJUGALES

**(A letter to three wives)**

**Zuzendaria:** Joseph Mankiewicz. **Aktoreak:** Jeanne Crain, Linda Darnell, Ann Sothern, Kirk Douglas.

Afari legean ari dira Deborah, Lora eta Rita. Bat-batean, taldean ez dagoen lagun baten eskutitza iristen da. Bertan, zor eta lor, dardarka, duda-mudatan utziko dituen berria: bera hiruretako baten senarrarekin dabil amodio jokoetan. Gizona zein den ez du aipatuko. Hiruretako batena, besterik ez... Edadearen ajeak ditu nabari-nabariak zeluloidezko lan mardul honek baina ez du axolik. Gidoia da akasgabea. Esaldi bakoitzak esanahi bikoitza darabil eta zorrotza da planu guztien azken islada. Xotila zuzendariaren harrotasuna eta miresgarria Jeanne Crain, Linda Darnell eta Ann Sothernen tristezia.

---

C+(e)
OSCAR SARIAK
Saio berezia 20.00

TF1
FUTBOLA
Nantes-Girondis 20.25

TVE2
TAL CUAL
Carmen Rossi eta Antonio Banderas 21.30

ETB2
RIFI RAFE
Familia tipo berrien legeztatzea 22.05

**M6**

07.00. **M6 express.** 07.05: **Contact 6 manager.** 07.10: **Les matins d'Olivia.** 09.05: **M6 boutique.** 09.35: **Boulevard des clips.** 10.50: **Daktari.** 11.45: **Infoconso.** 12.00: **Papa Schultz.** 12.30: **Les routes du paradis.** 13.30: **Drôles de dames.** 14.20: **Musikado.** 17.00: **Multitop.** 17.30: **Rintintin junior.** 18.00: **Flash.** 19.00: **Mission impossible, 20 ans après.** 19.54: **6 minutes.** 20.00: **Madames est servie.** 20.35: **Capital.** 20.45: **Cauchemar.** 22.30: **Mission impossible.** 23.25: **Les enquêtes de capital.** 23.55: **Sexy zap.** 00.35: **Culture rock.** 02.30: **Fréquenstar.** 03.25: **Fidae Chili 92.** 04.20: **Saint-Bernard de l'air (2).** 04.55: **Musimage.**

**CANAL+**

07.00: **CBS evening news.** 07.20: **Le journal de l'emploi.** 07.25: **Canaille peluche.** 07.55: **Ça cartoon.** 08.10: **24 heures.** 09.05: **Le journal du cinéma.** 09.10: **'Les nuits fauves'. Filmea.** 11.10: **Flash info.** 11.15: **Surprises.** 11.35: **Katoucha, top model chez Yves Saint-Laurent.** 12.30: **La grande famille.** 13.35: **'Le prince des marées'. Filmea.** 15.40: **Courants d'airs.** 16.30: **'Les petites canailles'. Filmea.** 18.45: **Nulle part ailleurs.** 20.30: **Le journal du cinema.** 20.35: **Jusq'a ce que le meurtre nous sépare.** 22.05: **Les arts martiaux.** 23.05: **'Basic instinct'. Filmea.** 01.10: **'Le quatrième homme'. Filmea.** 02.50: **'Spetters'. Filmea.** 05.15: **'L'homme du bengale'. Filmea.**

**arte**

19.00: **Rendez-vous avec Loriot.** 19.30: **Chronique de Sireniki.** 20.28: **Chaque jour pour Sarajevo.** 20.30: **8 1/2 journal.** 20.40: **Bonjour, camarade.** 22.10: **Premières vues.** 23.05: **'Le dernier cri'. Filmea.**

**TELE 5**

06.05: **Entre hoy y mañana.** 06.35: **La tele es tuya colega.** 08.35: **Los chicos de Hillside.** 09.00: **Los periodicos.** 09.15: **Antonella.** 10.05: **Micaela.** 10.55: **Hotel.** 11.45: **Comer es un placer.** 12.00: **¿De que parte estas?** 13.00: **Hunter.** 14.00: **La ruleta de la fortuna.** 14.30: **Veredicto.** 15.00: **Albistegia.** 15.30: **Dejate querer.** 17.20: **'Mi marido y sus complejos'. Filmea.** 19.35: **Su media naranja.** 20.30: **Albistegia.** 21.00: **Telecupón.** 21.05: **Veredicto.** 21.45: **'Duelo de titanes'. Filmea.** 23.55: **Gran fiesta.** 01.35: **Entre hoy y mañana.** 01.50: **'El sexo ataca'. Filmea.** 03.20: **Novedades increibles.** 03.50: **'Lo importante es no dejarse notar'. Filmea.** 05.30: **Novedades increibles.**

**A3**

06.45: **Albistegia.** 07.15: **Tras 3 tris.** 09.30: **Pasionaria.** 10.15: **Santa Barbara.** 11.15: **Todo va bien.** 13.00: **El equipo A.** 14.00: **Un mundo diferente.** 14.30: **Cosas de casa.** 15.00: **Albistegia.** 15.30: **'Rebelión a bordo'. Filmea.** 19.30: **Salvados por la campana.** 20.00: **Cita con la vida.** 20.30: **Historias de amor de Isabel Gemio.** 21.00: **Albistegia.** 21.30: **El chou.** 23.00: **La gran noche del fuego.** 01.00: **Albistegia.** 01.30: **'Cimarrón'. Filmea.** 04.30: **Televenta.**

**CANAL+**

08.05: **ABC world news.** 08.30: **Despierta peque y al loro.** 08.55: **Videominuto.** 09.52: **Albisteak.** 10.00: **'Lunas de hiel'. Filmea.** 12.15: **'Dulce Emma querida Bobe'. Filmea.** 13.35: **Los 40 principales.** 14.00: **Albisteak.** 14.50: **Spatz.** 14.30: **Roc.** 15.00: **'Hechizo de un beso'. Filmea.** 16.46: **'Engañada'. Filmea.** 18.30: **National Geographic.** 19.35: **Dog City.** 20.00: **Albisteak.** 20.05: **Especial Oscars 1993.** 21.00: **Primos lejanos.** 21.30: **Albistegia.** 22.00: **'Alien 3'. Filmea.** 23.51: **'Seducción peligrosa'. Filmea.** 01.32: **'Obsesiones'. Filmea.** 03.02: **'Cuerpo maldito'. Filmea.** 04.27: **'Atrapada en el pasado'. Filmea.** 06.01: **'Verano en Louisiana'. Filmea.**

## IRRATIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Arrate Irratia. | FM 87.7 | Gure Irratia. | FM 106.6 |
| Bizkaia Irratia. | FM 102.6 | Irulegi Irratia. | FM 91.08 |
| Egin Irratia. | FM 103.0 / 102.0 | Segura Irratia. | FM 89.2 |
| Euskadi Irratia. | OM 1.161 | Xiberoko Botza. | FM 88.8 |
| Euskalerria Irratia. | FM 91.4 | Xorroxin Irratia. | FM 107.5 |
| Gipuzkoa Herri Irrat. | FM 99.8 | Iruñeko Herri Irratia. | FM 87.6 |

**Bizkaia Irratia.** Athletic eta Celta taldeek astebukaera honetan jokatuko duten partidurako sarrera dohainik eskuratzeko aukera izango duzue. Horretarako EUSKALDUNON EGUNARIA eskuetan eduki eta goizeko hamar t'erdiak aldera 'Bihotzetik bihotzari' irratsaioan egingo diren galderak zuzen erantzun beharko dituzue. 22 sarrera bananduko dira.

**Segura Irratia.** Goizeko hamarretan hasi eta arratsaldeko ordu batak arte 'Gure denda' magazinaren konpainia izango duzue. Gaur ostirala denez, ohizko atalez gain, herrietako berriemaileek herri desberdinetako albisteak eskainiko dituzte goizeko hamaika t'erdiak aldera. Ordu laurden gutxiagotan Inozentzio Olea 'Segura aldetik' arituko da berriketan. Bestalde astebukaeran izango diren mendi ibilaldi desberdinen berri izango duzue gaueko bederatzi t'erdietan.

**Arrate Irratia.** Goizeko bederatzietan meza eskainiko da. Mendia eta mendizaleei eskainitako 'Gailurrez gailur' irratsaioa arratsaldeko ordu bata t'erdietan izango duzue entzungai. Ordu bete beranduago 'Eskainitako doinu eta abestiak' irratsaioa iritsiko da. Musika klasikoa gustokoa duzuenok galdu ezineko zita bat daukazue arratsaldeko seietan 'Kontzertu laburra' irratsaioarekin.